



Belarriak eta ahoak gero eta handiagoak | Bocas y orejas cada vez más grandes

Aprende euskera con tus txikis y este cuento. Accede a la unidad didáctica y el audiocuento en: <http://www.sorginatxirulina.eus/euskaraldia-2018>

Amets esnatu zen eta **konturatu** zen bere amaren belarriak handiago zeudela. Umeak pentsatu zuen aurreko egunean musika oso altu entzuten ibili zenez, horregatik handitu zitzaizkiola. Hori, edo euskaltegian hain **buru-belarri** ikasten egoteagatik azkenean belarriak ere handiago samar zituela.

Amets se despertó y se dió cuenta de que las orejas de su madre estaban más grandes. La niña pensó que como el día anterior había estado escuchando música con el volumen muy alto, por eso igual se le habían agrandado. Eso, o por **estudiar con tanto ahínco** en el euskaltegia.

—Ama, ni zure euskara-irakaslea izan ahal naiz!—sarritan esaten zion Ametsek.

Hala ere, bere ama euskaraz **hitz egiten saiatzen** zen, baina beldurra ematen zion akatsak egitea eta **alabari oker** irakastea.

Horrez gain, **amorrua ematen** zion berarekin hitz egiterakoan erdarara jotzen zutenean.

—Ama, ¡yo puedo ser tu profe de euskara!— le solía decir Amets.

Sin embargo, su madre **intentaba hablar** en euskera pero le daba miedo cometer errores y enseñarle mal a su **hija**.

Aparte de eso, le **daba rabia** cuando para hablar con ella dejaban de hablar euskera y pasaban al castellano.

Larunbata zen eta astebururo bezala, Goizeder bere **izekorekin** parkera joan zen.

Mutikoak beste izeko eta **osaba** gehiago zituen baina bere gogokoena izeko Lur zen.

Margolaria duen **lanbide** eta oso marrazki politak egiten zizkion.

Dena dela, Goizederrek ez zuen ulertzen zergatik izekok erdaraz hitz egiten zuen beste helduekin.

—Agian uste du umeok bakarrik dakigula euskara?

Era sábado y como todos los fines de semana, Goizeder fue al parque con tu **tía**. El niño tenía más tías y **tíos**, pero su favorita era la tía Lur. Ella es pintora y le hacía unos dibujos muy bonitos. Aunque había una cosa que Goizeder no entendía: ¿Por qué su tía hablaba con el resto de mayores en castellano? —¿Igual cree que solo los niños sabemos euskera?



Parkean jolasten ari ziren: **txirristatik** jaisten, **zabuan** dilin-dalan, “Koloreetako Sorgina” jolasean (hori zen bere izekori gehien gustatzen zitzaiona, margolaria delako)... Orduak oso azkar pasatu ziren eta **ilunabarrean** Goizeder konturatu zen izekoren ahoa handitzen hasi zela. —Azaroa da eta **hotza itzela** dago. Hori dela eta, handitu omen zaiola—pentsatu zuen Goizederrek.

Estuvieron jugando en el parque: se tiraron por el **tobogán**, se montaron en el **columpio**, jugaron a “La Bruja de los colores” (ese era el juego que más le gustaba a su tía). Las horas pasaron muy rápido y al **atardecer**, Goizeder se dió cuenta de que la boca de su tía estaba mucho más grande. —Estamos en noviembre y hace **mucho frío**. Por eso se le habrá agrandado— pensó Goizeder.

Astelehenean Goizederrek Ametsi kontatu zion bere izekoren arazoa. Aho **izugarria** zuela; berak ere **aitortu** zion bere ama arraro zebilela belarriak handitzen baitzitzaizkion. Irakaslea klasera sartu zen eta “Egun on” esan zien ikasleei.

Goiz horretan gelakide gehienek aurpegi arraroak zituzten eta irakaslea horretaz ohartu zen:

El lunes, Goizeder le contó a Ametsi el problema de su tía; que tenía una boca **descomunal**.

Amets le **confesó** que su madre también estaba rara porque se le habían agrandado las orejas.

El profesor entró en clase y les dijo a los alumnos: “Buenos días”

Esa mañana, la mayoría de los compañeros de clase tenían unas caras muy raras,

Y el profesor se dió cuenta de eso:

—Badakit zergatik zaudeten **zur eta lur**. Zuen **etxekoei** aho eta belarriak handitu egin zaizkie, ezta?

—BAI!!! – oihukatu zuten denok batera.

—Ba ez kezkatu neska-mutilak. Ez da arazo bat. Azalduko dizuet. Ostiralean Euskaraldia hasiko da eta **hamaika egunetan** euskara eta pertsonak izango dira protagonistak.

—Euskaral.. zer? – galdetu zion gelako batek.

—EUSKARALDIA. Azaroaren 23tik Abenduaren 3ra arte pertsonak txapa batzuk soinean eramango dituzte. Batzuk **ahobizi** izango dira eta besteak **belarriprest**.

—Ahh! Eta horregatik daude nire amaren belarriak hain handiak, bera belarriprest izango delako —esan zion Ametsek.

—Horixe da. Belarriprest direnak euskara ulertzen dute baina agian ez dakite ondo hitz egiten. Zure ama bezala, euskaltegia ikasten ari dela.



—Ya sé por qué estáis **de piedra**. ¿A vuestros **familiares** se les han agrandado las orejas y las bocas, no?

—¡Sí! —gritaron todos a la vez.

—No os preocupéis. No es un problema, os lo voy a explicar. El viernes comenzará Euskaraldia y durante **once** días el euskera y las personas serán las protagonistas.

—Euskaral.. ¿qué? — le preguntó uno de clase.

—EUSKARALDIA. Desde el 23 de noviembre al 3 de diciembre los adultos llevarán puestas unas chapas. Algunos serán “**ahobizi**” y otros, “**belarriprest**”

—¡Ahh! Y por eso mi ama tiene las orejas tan grandes, porque ella será “belarriprest” — dijo Amets.

—Eso es. Las personas “belarriprest” entienden euskera pero puede que no sepan hablarlo muy bien. Como tu ama, que está estudiando en el euskaltegi.

—Eta ahobiziek? Zer egiten dute?

—Ahobizi direnak euskaraz badakite baina askotan erdaraz aritzen dira euskaraz dakitenekin.

11 egun hauetan euskaraz esan beharko dute bere **lehenengo hitza**.

—Ummm, nola?- galdetu zion Goizederrek.

—Adibidez, zure izekok badaki euskaraz baina okindegira joaten zaretenean zer esaten du?

—Una barra de pan, por favor.

—Horixe. Ba orain euskaraz eskatuko du: “Ogi barra bat, mesedez”

—Ados, ulertzen dugu. Helduek orduan **euren artean** euskaraz hitz egingo dute, gurekin hitz egiten duten bezala.

—Euskaldiaren kanta entzun nahi duzue?

—BAI!

—¿Y los “ahobizi”? ¿Qué hacen?

—Las personas “ahobizi” hablan euskera pero muchas veces hablan en castellano con personas que saben euskera.

Durante estos 11 días la **primera palabra** siempre será en euskera.

—Ummm, ¿cómo? —preguntó Goizeder.

—Por ejemplo, tu tía sabe euskera, pero cuando vais a la panadería, ¿qué dice?

—Una barra de pan, por favor.

—Eso es. Ahora lo pedirá en euskera: “Ogi barra bat, mesedez”

—De acuerdo, lo entendemos. Los mayores hablarán **entre ellos** en euskera, como hacen con nosotros.

—¿Queréis escuchar la canción de Euskaraldia?

—¡Sí!

*16 urte gorakoek aukeratu dute rola
eta horrela hartu ahal dute kontrola
Hau bai errutinari gola,
Euskal kulturari bejondeiola!*

*Que los mayores de 16 años elijan su rol
y así pueden coger el control.
Esto sí es un gol a la rutina,
¡Felicidades a la cultura vasca!*